2020ko lehen hiruhilekoan hiriaren irudi ezohiko batzuk ikusi genituen. Donostiako kaleak biluzik ageri ziren, jenderik gabe. Pandemia hasi eta bi urtera, irudi horiek dira **gogoeta** honen abiapuntua. Hiri bateko gauzarik garrantzitsuena bertako biztanleak dira. **Donostiarrok ematen diogu bizia eta zentzua hiriari.**

Donostia, hiria bera leku hobea izan dadin ahalegindu diren donostiarren belaunaldiek pentsatu, eraiki eta zaindutako komunitatea da.

Bi urte hauetan, gure komunitatea elkartuta mantentzeak zer esan nahi duen erakusten duten, adibide asko ikusi ditugu: Maria Cristina Hotela osasun gune gisa, auzoetako sareen inplikazioa, 65 urtetik gorako pertsona guztiei egindako telefono deiak (Lagunkate), eskaintza kulturalari eusteko Udalaren apustua edo kontsumo bonuak. "Hiria egiteko" helburuari ekarpena egin dioten keinuak, ekintzak eta erabakiak.

**Orain etorkizunari ilusioz eta indarrez begiratzeko garaia da.** Balioak partekatu behar ditugu, ikuspegiak batu, konplizitate eta lankidetza sareak ehundu berehalako erronkei aurre egiteko, aukerak sortzen jarraitu ahal izateko.

Durante el primer trimestre de 2020 presenciamos unas imágenes insólitas de la ciudad. Las calles de Donostia aparecían desnudas, despobladas. Dos años después del comienzo de la pandemia, esas imágenes son el punto de partida de esta **reflexión.** Lo más importante de una ciudad son sus habitantes. **Son las y los donostiarras los que dan vida y sentido a la ciudad, el motor que la hace avanzar.**

Donostia/San Sebastián es una comunidad pensada, construida y cuidada por generaciones consecutivas de donostiarras que se han esforzado por hacer de esta ciudad un lugar mejor.

En estos dos años hemos visto muchos ejemplos de lo que significa mantener unida nuestra comunidad: el Hotel Maria Cristina funcionando como espacio sanitario, la implicación de las redes de barrios, las llamadas telefónicas a todas las personas mayores de 65 años (Lagunkate), la apuesta municipal por mantener la oferta cultural o los bonos de consumo. Gestos, acciones y decisiones que han aportado al objetivo de "hacer ciudad".

**Ahora toca mirar al futuro con ilusión y fuerza.** Necesitamos compartir valores, sumar visiones, tejer redes de complicidad y de cooperación para hacer frente a los retos inmediatos para poder seguir generando oportunidades.







Hiriak ez dira estatikoak, etengabeko bilakaeran daude. **Donostia asko aldatu da 20 urtean.** Turismoak hirian eragin duen fenomenoaz ari gara, baina aldaketak askoz ere alderdi gehiago hartzen ditu eta bazter guztietara iristen da. 27. poligonoa, Herrera, Zuatzu, Miramon eta Eskuzaitzeta ere Donostia dira. Kontxako badiatik 5 minutura abangoardiako zentroak daude, **osasunari, elikadurari, mugikortasun elektrikoari, ezagutza zientifikoari edo adinekoentzako programei aplikatutako ehunka berrikuntza proiektu garatzen dituztenak.**

Denok bizi nahi dugu leku egoki, atsegin, integratzaile eta jasangarri batean, ekonomia oparoa eta mundura zabaldu eta gure nortasunari eutsiko dion kultur eskaintza duena. **Hiri guztiek bilatzen dituzte antzeko helburuak, baina batzuen eta besteen arteko alderik handiena erronka horiei nola aurre egingo dieten da.** Osasunaren gaineko inpaktuek, larrialdi klimatikoak, teknologia berriek eta gizartearen balio berrituek argi uzten dute etorkizuna birpentsatzen jarraitu beharra dagoela. Hiriek erronka berriak ezarri, lehentasunak aldatu eta plan estrategikoak proiektatzen dituzte.

**Baina 2022an, galdera ez da nor garen edo zer izan nahi dugun. Aurrera egiteko bokazioa duen hiri baten galdera da: zer egin dezakegu elkarrekin?**

Las ciudades no son estáticas sino que están en continua evolución. **En 20 años Donostia ha cambiado mucho.** Hablamos del fenómeno que ha supuesto el turismo para la ciudad pero el cambio abarca muchos más aspectos y llega a todos los rincones. También es Donostia el Polígono 27, Herrera, Zuatzu, Miramón o Eskuzaitzeta. A 5 minutos de la bahía de La Concha encontramos centros de vanguardia que desarrollan cientos de **proyectos de innovación aplicados a la salud, alimentación, movilidad eléctrica, el conocimiento científico o programas para las personas de edad.**

Todos queremos vivir en un lugar habitable, amable, integrador, sostenible, con una economía próspera y una oferta cultural que nos abra al mundo y mantenga nuestra identidad. **Todas las ciudades buscan objetivos similares, pero la diferencia sustancial entre unas y otras es cómo van a abordar estos retos.** El impacto en la salud, la emergencia climática, las nuevas tecnologías y los renovados valores de la sociedad hacen evidente la necesidad de seguir repensando el futuro. Las ciudades se marcan nuevos retos, cambian sus prioridades y proyectan planes estratégicos.

**Pero en 2022, la pregunta ya no es quiénes somos o qué queremos ser. La pregunta de una ciudad con vocación de progreso es, ¿qué podemos hacer juntos?**





FSC eta PEFC ziurtapenak dituen paperean inprimatua / EAJ-PNV afiliazioak ordainduta

**Datozen urteak funtsezkoak izango dira** hiriaren etorkizunerako. Biharko eguneko Donostia marraztuko duten erabakiak hartu behar ditugu. Topoaren obren amaiera; espazio publikoaren eraldaketa; oinezkoentzako protagonismo handiagoa; emisioen murrizketa; Urumearen ardatza indartzea, Loiolako Kuartelek eskaintzen diguten aukerarekin; Infernuaren hiri berroneratzea; kultura mapa sendotzea; jarduera ekonomiko berriak erakartzea; Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idaztea; aniztasuna kudeatzea; zainketa sistema eta erronka demografikoa lehentasunezkoak dira hiriarentzat.

**Baina, horretarako,** komunitate sentimendu partekatua sortu behar dugu hiriaren aurrerapenarekin zerikusia duten gaien inguruan. **Etorkizuneko Donostia eraikitzeko gakoa biztanle guztien inplikazioa izango da.** Hainbeste adibide populista ikusten ari garen garai honetan, politikaren balioa berreskuratu behar dugu. Ez dut sinesten arazo konplexuei erantzunak eman nahi dizkieten diskurtso erraz eta sinplistetan. Halaber, ez nator bat herriaren babesa irabazteko beldurra edo aurreiritziak erabiltzearekin. Alkatetza honetatik desinformazioaren aurka borrokatuko gara, baita komunitate bezala desegin nahi gaituzten estrategien aurka ere.

**Orain inoiz baino garrantzitsuagoa da entzutea, berrikastea, apala eta zintzoa izatea.** Gauzak hobeto egitearen alde lan egitea, akatsak onartzea, eskuzabaltasunez jokatzea eta komunitateari ekarpena egitea, harro sentiaraziko gaituen 2030eko Donostia lortzeko.

eaj pnv

**Los próximos años serán fundamentales para el futuro** de la ciudad. Debemos tomar decisiones que dibujarán la Donostia del mañana. La finalización de las obras del Topo, la transformación del espacio público, mayor protagonismo para el peatón, la disminución de las emisiones, reforzar el eje del Urumea con la oportunidad que nos brindan los Cuarteles de Loiola, la regeneración urbana del Infierno, consolidar el mapa cultural, la atracción de nuevas actividades económicas, la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, la gestión de la diversidad, el sistema de cuidados o el reto demográfico son cuestiones prioritarias para la ciudad.

**Pero para ello** debemos crear un sentimiento compartido de comunidad en torno a los temas relacionados con el progreso de la ciudad. **La clave para construir la Donostia del futuro será involucrar a todas y todos sus habitantes.** En este tiempo en que somos testigos de tantos ejemplos populistas, debemos recuperar el valor de la política. No creo en los discursos fáciles y simplistas que pretenden dar respuestas a problemas complejos. Tampoco comparto el uso del miedo o de los prejuicios con el fin de ganar apoyo popular. Desde esta alcaldía lucharemos contra la desinformación y las estrategias que intenten desunirnos como comunidad.

**Ahora más que nunca es importante escuchar, reaprender, ser humilde y sincero.** Trabajar por hacerlo mejor, asumir los errores, actuar con generosidad y aportar a la comunidad para conseguir una Donostia 2030 de la que sentir un profundo orgullo.

Impreso en papel con certificación FSC y PEFC / Abonado por la afiliación de EAJ-PNV

**Eneko Goia Laso**
Donostiar guztien alkatea
Alcalde de todos los y las donostiarras

943 48 10 04 | enekogoia.eus | eneko@enekogoia.eus | @EnekoGoia @DonostiaPNV | @eneko_goia @eajpnvdonostia | EnekoGoia eajpnv.donostia

Eneko Goia

DONOSTIA 2030

DONOSTIA 2030

Eneko Goia




# DONOSTIA

## 2030